



Honako Idazkia bihoa bere tramiterako

..... Sailera

Pase el presente escrito al Negociado de

Secretaría para su trámite

Alcalde 2018 MAY. 02

IDAZKARI OROKORRAK

APARKAMENDUEI BURUZKO PROZESU PARTE-HARTZAILE SERIO ETA OSOA EGITEAREN

ALDEKO MOZIOA

Prentsa bidez jakin dugunez, aparkalekuen arazoa bideratzeko Udalak parte-hartze prozesu bat martxan jarri duela iada. Bere momentuan, Ehbilduk proposatuta eta PSOE-rekin mozio transazional bat eginik, Udal Batzarrak onartu zuen partehartze prozesu hau martxan jartzea. EHBilduk proposatzen zuen, ordea, benetako parte-hartze prozesu serio eta osoa planteatzen genuen, ez inolako aholkularitza teknikorik gabeko prozesua.

Parte-hartze prozesu bat aurrera eramateko seriotasun gehiago eskatzen dugu. Nola da posible, parte-hartze prozesu bat aurrera eramateko, diseinoa inolako aholkularitza teknikorik gabe egitea? Nola da posible partehartze prozesu bat hilabete batean, herritar, eragile eta elkarteekin bildu eta Udalak dituen azterketak eta txostenak konpartitu gabe? Egon daitezkeen mota aukerak eta oztopoak herritarrekin landu gabe? Aukeraketa egiterakoan, herritarren balorazioa kontrastatu gabe?

Horegatik guztiarengatik, benetako prozesua eskatzen dugu, serio eta osoa, aholkularitza teknikoaren gidapean, herritar, eragile, auzo elkarteekin eta abarrekin landuko duena.

Hau guztia kontutan hartuz, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak honako akordioa onartzen du:

- 1.- Parte-hartze prozesua aurrera eramateko aholkularitza tekniko kontratatzea.
- 2.- Aholkularitza tekniko horrek partehartze prozesuaren diseinuaren berri ematea udaleko zinegotzi guztiei Barne Erregimeneko batzordean.
- 3.- Barne Erregimeneko batzordean partehartze prozesu horren diseinuaren berri eman bitartean, Udalak martxan jarri nahi duen buzoneoa geratzea. Parte-hartze prozesua martxan jarriko da aholkularitza teknikoak behin Barne Erregimeneko batzordean prozesuaren diseinuaren berri eman ondoren.

Lasarte-Orian, 2018ko maiatzaren 2an